


Juan Antonio Mogel Urkiza

Zenon Uriguen, Pasiotarra



Jatorria:

Mogel abizena ez da euskalduna, Alfaro, Errioxatik etorria baño. Juan Antonioren –aitona- Rueska, Calatayud ondoan jaioa da. Bere bizibidea medikua izanik Markinara bialdua izan zan. Emen jaioa dogu Juan Antonioren aita, medikuntza ikasteak amaiturik Agurain errira eta geroago Eibarrera bialdua izan zana. Emen jaioa dogu gure Juan Antonio Mogel. Bere amaren izena ezin dogu jaso, eta lau urtekin bere gurasoekin Deba eta Markinara aldatuak izan dira. Juan Antonio gazte erne, burutsua eta eraginkorra da euskera ikasteko, elizari laguntzeko. Bere etorkizunaren jaun ta jabe izan nai dau eta Jaunaren graziagaz apaiz izateko erabaki sendoa artu dau. Emen historia- ren utzuneagaitik ez daukagu datarik nun egin zituan eliz ikasketak eta noiz izan zan abade. 1788 urtean Xemein Markinako elizaren Parroko arduraduna dala dakigu.

Ateak eta biotza zabalik:

Juan Antonio abadea abegi eta txera undikoa dogu eta abade etxean arrera ona emoten dautse Frantzia aldetik iraulpenetik igeska datozen apaizai, euretatik batzuk euskaldunak. Alde batetik pobre bizi da eta pobreago ilko da. Beste aldetik zorioneko adizkideak, idazle jatorrak egingo ditu: Aita Añibarro, Juan Bautista Agirre, Pablo Astarloa, Vargas Ponce, eta, batez be Humboldt filologo jakintsua gure izkuntza zarraren asiera eta biziera jakin-miñez Euzkadirra etorria.

Euskal idazlaria:

Mogelek biotz-biotzez maite da euskera eta euskal erria. Orduko garaietan ez dago gure errietan libururik. Zer egin? Juan Antonio abade ona, erriaren maitale zintzoa ta errikoa izanik base- rritarrakin arreman zintzo ta sakonak ditu. Eta jakiña erria da euskeraren iturri aberatsa eta ugaria, “izkuntzaren eskola”. Erriak egin eta eragiten



ditu historiaren goraberak familian ta gizartean. Mogelen zoragarrizko buruan sortzen da liburu bat egiteko asmoa erriaren xeibrekeri guztiak erriko giroan bapo jarririk eta argitaratuko dau bere idazlan ospetsu ta xelebrea: **PERU ABARKA el doctor Peru Abarka, catedrático de la lengua Baska en la Universidad de Basarte**. Auxe da Juan Antonioren idazlan gorenena. Alkarrizketa gozatsu bat da Euskal baserritar berba-jarioduna eta Galiziatar bizargile, Maixu Juan'en artean. Alkarrizketa onetan oso ondo azalduko dabez orain arteko oiturak eta bizierak, iruzur ta azpikeriak, zoritxarrak eta zorionak, euskal gizartearen goraberak eta eztabaidak. Peru Abarkak zati bi ditu 40 orrialde gasteleraz eta 200 orrialde euskeraz. Euskal idaz lanetan alaigarriena da, jakingarria zientzia gaietan, batez be erri izkunza zarra ain bikain egiñez erriaren aurreko, oraingo eta gero-ko zerak ondo baño obeto idatzi eta adieraziz. Euskeraz eginiko lenengo eleberria da eta bizkaieraz agertzen dan lenengo liburu. Moguel jaunna da, benetan, Bizkai-euskalkiaren sortzalea. Mogelen liburuak **zazpi dira**: euskeraz eta erderaz egiñak, danak euskera eta kristau bizibideari buruz. **Gogoa dan tokian, aldarparik ez.**

